



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

The Cuban Jazz Syndicate, Michael Olivera bateria-jotzaileak zuzendutako Kubako musikarien talde bikaina, Arriaga Antzokira helduko da

- Michael Oliverak (bateria), Pepe Riverok (pianoa), Miryam Latrecek (ahotsa), Carlos Sarduyk (tronpeta), Yarel Hernández (baxua) eta Ariel Bringuezek (saxo tenorra) osatzen dute asteartean, martxoaren 28an, «BJC Arriagan» zikloaren baitan agertuko den taldea.

Bilbo, 2023ko martxoaren 24a.- Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak bultzatutako «BJC Arriagan» zikloaren urteko lehen musika-hitzordua datorren asteartean, martxoaren 28an, izango da (19:30ean) eta **The Cuban Jazz Syndicate** taldea izango da oholta ganean. **Michael Olivera** bateria-jotzailea buru duen talde sendo hau musikari kubatar itzelek osatzen dute. Taldeak proposatzen digun soinu-bidaia Kubatik abiatzen da, eta hunkitu egingo gaituzten munduko hainbat paisaia bisitatuko ditu musikalki.

Bateria-jotzaile, ekoizle, konpositore eta moldatzaile gisa ibilbide luzea du Michael Oliverak, betiere jazzarekin estuki lotua. 60 diskotan baino gehiagotan eta ehunka proiektutan hartu du parte. Jaialdi garrantzitsuetan izan da, hala nola Jazz a Vienne, Marciac, North Sea Jazz, Montreux Jazz Festival, Montreal Jazz Fest, Blue Note NY, Blue Note Tokio, Jakarta Jazz Festival, Warsaw Jazz Festival, Madrid Jazz Festival eta Barcelona Jazz Festival jaialdietan. Besteak beste, Quincy Jones, Alfredo Rodriguez Trio, Richard Bona, Jorge Pardo, Paquito de Rivera, Pepe Rivero, Caramelo de Cuba, Rick Wakeman, Tomatito eta abarrek ino du.

Habanako Arte Eskola Nazionalean graduatu ondoren, Oliverak bere lehen lana grabatu zuen bandleader gisa: *Ashé*. Yoruba hizkuntza afro-kubatarretik dator hitz hori, eta «jainkozko bedeinkapena» esan nahi du. Arrakasta horren ondoren, Oliverak beste lan bat aurkeztu zigun, *Oasis*, melodia eta erritmo kutsakorrez betea. Orain, Oliverak talde berri hau aurkezten du: The Cuban Jazz Syndicate. Espainian bizi diren artista kubatarrik onenak bildu ditu horretan bere azken diskoa egiteko: *Y Llegó la luz*. Hauxe Arriaga Antzokian azalduko den taldea: **Michael Olivera** (bateria), **Pepe Rivero** (pianoa), **Miryam Latrece** (ahotsak), **Carlos Sarduy** (tronpeta), **Yarel Hernández** (baxu elektrikoa) eta **Ariel Bringuez** (saxo tenorra).

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus